



Irakurtzeko zailtasunak. Dislexia

Uzt. 07 - Uzt. 09 2021

Kod. H11-21

Mod.:

Online zuzenean Aurrez aurrekoa

Edizioa

2021

Jarduera mota

Uda Ikastaroa

Data

Uzt. 07 - Uzt. 09 2021

Kokalekua

Elbira Zipitria zentroa

Hizkuntzak

Euskara

Balio akademikoa

30 ordu

Antolakuntza Batzordea



Fundación
BBVA



Azalpena

Ikastaroa aurrez aurre ospatuko da eta online zuzenean parte hartzeko aukera ere egongo da ZOOM bidez. Matrikula prozesuan nola parte hartuko duzun aukeratu: aurrez-aurre edota online zuzenean.

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko baliozkotzea dauka (2168170016) unibertsitateaz kanpoko irakasleentzat. Baita ere Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza Sailak irakasleen etengabeko prestakuntza gisa ere baliozkotzea eskatu da.

Idazte-irakurtze prozesuan sor daitezkeen zailtasunak ezagutzea eta ulertzea da Uda Ikastaro honen helburua.

Dislexia edo ikasteko berariazko zailtasunak dituen pertsona baten bizitzan eragina duten agente guztiek ezagutu beharko zituzten hainbat alderdietan ipiniko du arreta.

Lehenik eta behin, egoera bere osotasunean aztertu eta ondo ulertzera bideratuko du formakuntza, eta hortik abiatuz, ikasleekiko betebeharrak eta ardurak ulertu eta hauek betetzeko gaitasuna garatuko da.

Helburuak

Ezagutza espezifikoa jasotzea idazte-irakurtze trabetasunen garapenean aurkeztu daitezkeen behar eta zailtasunen inguruan.

Curriculum-a garatzeko hasieratik aniztasuna kontuan hartzeko markoa ezagutzea: Ikaskuntzaren Diseinu Unibertsala.

Esku-hartze espezifikoak eta gela arruntean izango duten proiektzioa antolatzeke oinarritzeko ezagutzak jasotzea.

Programa

2021-07-07

09:00 - 09:15	“Erregistroa”Jardueraren zuzendaritzaren aurkezpena Izaskun Eskubi Goienetxe Berritzegune Nagusia - Aholkularia
09:15 - 10:30	“Eskola inklusiboa euskal erkidegoan. Ikasteko zailtasunak” Izaskun Eskubi Goienetxe Berritzegune Nagusia - Aholkularia
10:30 - 10:45	Atsedena
10:45 - 12:00	“Zer da dislexia?” Ana Ikazuriaga Muniategi Berritzegune Nagusia - Aholkularia
12:00 - 12:15	Atsedena
12:15 - 13:30	“Dislexiaren detekzioa.” Ana Ikazuriaga Muniategi Berritzegune Nagusia - Aholkularia
13:30 - 14:00	Sintesia

2021-07-08

09:00 - 10:15	“Esku hartzea. Trebetasun fonologikoak lantzearen garrantzia” Ana Ikazuriaga Muniategi Berritzegune Nagusia - Aholkularia
10:15 - 10:30	Atsedena
10:30 - 11:45	“Ikaskuntzaren diseinu unibertsala” Carmen Couto Barros Berritzegune Nagusia - Aholkularia
11:45 - 12:15	Atsedena
12:15 - 13:30	“Ikaskuntzaren Diseinu Unibertsala (IDU)” Carmen Couto Barros Berritzegune Nagusia - AHOLKULARIA
13:30 - 14:00	Sintesia

2021-07-09

09:00 - 10:15	“Dislexiarekin esku hartzea HH eta LHko 1. eta 2. mailan.”
---------------	--

Aranzazu Elguezabal Biain Psikopedagoga

10:15 - 10:30

Atsedena

10:30 - 11:45

“Esku hartzea Lehen Hezkuntzako 3. mailatik 6. mailara”

Aranzazu Elguezabal Biain Psikopedagoga

11:45 - 12:15

Atsedena

12:15 - 13:30

“Esku hartzea DBH eta Batxilergoan.”

Aranzazu Elguezabal Biain Psikopedagoga

13:30 - 14:00

Sintesia

Zuzendaritza



Izaskun Eskubi Goienetxe

Berritzeguna Nagusia

Pedagogian eta Psikopedagogian lizentziatua. Psikomotrizista. Nire lan-hastapenak Zereginen Ikaskuntzarako Gela (ZIG) batean izan ziren, tailerreko irakasle gisa, eta gero orientatzaile izatera igaro nintzen bigarren hezkuntzako ikastetxeetan. Gaur egun Berritzegune Nagusiko laguntza-zerbitzuko Eskola inklusiboaren eta HLPren taldeko arduraduna naiz.

Irakasleak



Carmen Couto Barros

Berritzegune Nagusia

Berritzegune Nagusiko Inklusibitate eta Hezkuntza Laguntza Premia Bereziko aholkularia. Magisteritzan Diplomatu. Pedagogian eta Psikologian Lizenziatua. Logopeda.



Aranzazu Elguezabal Biain

Psikopedagogia eta Magisteritzaren Heziketa Berezia ikasketak. Master logopedia ISEPn. Master Pedagogia Sistemica CUDEC Unibertsitatea.



Ana Ikazuriaga Muniategi

Berritzegune Nagusiko Inklusibitatea eta Hezkuntza Laguntza Premia Bereziko aholkularia. Magisteritzan Diplomatu. Pedagogían Lizenziatua. Logopeda.

Matrikula prezioak

AURREZ AURRE	2021-03-08 ARTE	2021-07-07 ARTE
Prest_gara H11-21	0 EUR	-
OROKORRA	-	105,00 EUR
MATRIKULA MURRIZTUA OROKORRA	-	89,00 EUR
MATRIKULA EXENTZIOA	-	74,00 EUR
IRAKASTEKO IKASTEN MURRIZPENA	-	89,00 EUR
Euskaltegi edo autoikaskuntzarako zentro homologatuko kide	-	89,00 EUR
ELKAR txarteldunak	-	89,00 EUR

ONLINE ZUZENEAN	2021-03-08 ARTE	2021-07-07 ARTE
OROKORRA	-	105,00 EUR
MATRIKULA MURRIZTUA OROKORRA	-	89,00 EUR
MATRIKULA EXENTZIOA	-	74,00 EUR
IRAKASTEKO IKASTEN MURRIZPENA	-	89,00 EUR
Euskaltegi edo autoikaskuntzarako zentro homologatuko kide	-	89,00 EUR
ELKAR txarteldunak	-	89,00 EUR

Kokalekua

Elbira Zipitria zentroa

Ondarreta pasalekua, 18. 20018 Donostia

Gipuzkoa